

Urria

1



Jardunaldira bertaratutako jendea.

EDSUren I Europako Mintegia eta EDSUren Biltzar Orokorra.

Urriaren 8tik 11ra Bilbon EDSUren (Europako Ikasle Gorren Batasuna) I Europako Mintegia antolatu genuen. "Goi mailako hezkuntzako harresiak apurtuz" izenburupeko jardunaldiek larunbatera arte iraun zuten. Ondoren, EDSUk bere Biltzar Orokorra ere Bilbon bertan egin zuen. Ekitaldi honetan Euskal Gorrakek Europako 27 herrialde ezberdinetatik etortako 81 pertsona hartu zituen.



Sofiya Kalinova, Álvaro Ortega, Arantxa Aurrekoetxea eta Iñigo Pombo.

Irekiera-ekitaldian Hezkuntza sailburuordea den Arantxa Aurrekoetxea, Bilboko Udaleko Gizarte Politiketako zinegotzia den Iñigo Pombo nahiz EDSUko eta Euskal Gorrakeko presidentek Sofiya Kalinova eta Álvaro Ortega, hurrenez hurren, parte hartu zuten.



Begoña Garamendik hitza hartu zuen unea.

Jardunaldien bigarren egunean Liva Viknamek, Maya de Witte eta Lars Knudsenek hartu zuten hitza. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatze Saileko Zuzendari Begoña Garamendik ere parte hartu zuen.



Hizlariak bertaratutako enbalderei erantzun zuten uneetako bat.




Arratsaldeko saioari hasiera emateko tailerrean, partehartzaileak goi mailako hezkuntzan pertsona gorrek duten irisgarritasunaz mintzatu ziren workshop-taldetan banatuta.



Talde ezberdinek workshop saioan lanean.



Lantalde bakoitzaren ondorioak partekatzeko unea.



Liva, Belgikako partehartzaile entzulea den heinean, Leyrek eta Aritzek Zeinu Sistema Internazionaletik ahozko ingelesezko belarri-interpretazioa egin zioten.

Aritz Ardanaz eta Leire Subijana interprete lanetan Liva Vikmanentzat.



Izaskun Bilbao Mintegiko ordezkari eta antolakuntza-taldeko kideekin batera.

Ostiral arratsaldean Izaskun Bilbao europarlamentaria gurekin izan zen eta lantalde guztietara hurbildu eta hitza hartze-ko beta aprobetxatu nahi izan zuen.




Izaskun Bilbao lantaldeetako batean parte hartzen.



Turkiako partehartzaileak euren jantzi tipikoak soinean.

Ostiral gauez, jardunaldiaren ostean, kulturarteko afaria antolatu genuen. Partehartzaileek euren herrialdeetatik ekarritako jaki, edari eta produktu tipikoak dastatzeko parada izan genuen.



Guggenheim Museorako bisita.

EDSuren I Europako Mintegiko partehartzaile guztiei gure hiria eta kultura erakusteko asmoz, larunbat goizean ibilbide turistikoa egin genuen Bilbon zehar: Bilboatsen eskutik ibilbidea egin genuen itsasadarrean barrena, Guggenheim Museoa bisitatu eta, ondoren, Bizkaia Frontoira joan ginene Herri Kirolen erakustaldiaz nahiz pelota partida batez gozatuzera. Hamaiketakoa hartu, pintxo-jana, pelotan ibili, txingatan, apustu egin...



Hamaiketakoa Bizkaia Frontoian.



Herri kirolen erakustaldia.



Mintegiaren lehenengo egunaren laburpen-bideoa.

Mintegiaren bigarren egunaren laburpen-bideoa.

Ekitaldiaren laburpen-bideoa.

QR kodeak harrapatu ekitaldiaren bideoak ikusteko.



Jaialdian saritutakoen argazkia.

Zeinu Hizkuntzako Zinema Jaialdia.

Urriaren 24an, larunbata, Tolosako Pertsona Gorren Elkar-teak eta Euskal Gorrakek, Zeinu Hizkuntzako VI Nazioarteko Zinema Jaialdia antolatu zuten. Arrakasta itzela lortu zuen ekitaldiak, asko izan baitziren lehiaketara aurkeztutakoak baita berai ikustera bertaratutakoak ere.

Azaroa

3



Sorkunde Bez, Akademiako Zuzendaria eta Álvaro Ortega, Euskal Gorrakeko Presidente, Akademiako nahiz EGko hainbat kiderekin batera.

Bilera Arkauteko Akademian.

Azaroaren 24an Euskal Gorrakeko presidentea Federazioko hainbat ordezkari lagunduta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendariarekin bildu zen, Arkaute udalerrir arabarrean hain zuzen ere. Bilera horretan Euskal Gorrakek, Euskadiko segurtasun-indar nahiz erakundeek, suhiltzaileek zein herri-babeserako zerbitzuek pertsona gorrekin egokitasunez eta inolako bitartekaritarik gabe komunikatzeko gaitasuna eskuratu dezaten ikusten duen beharra mahaigaineratu zuen. Sorkunde Bez, Akademiako Zuzendaria, horretara bideratutako prestakuntza-ekintzak gauzatzeko aukera aztertze guztiz prest azaldu zen, pertsona gorrek segurtasun-talde guztiekin oztoporik gabe komunikatzeko daukaten eskubidea bermatze aldera.

4



Lurralde ezberdinetako federazio eta elkarten nahiz CNSEren ordezkarien argazkia.

CNSEren II Presidenteentzako Biltzarra.

Azaroaren 26tik 29ra, Euskal Gorrakeko Presidenteak, Álvaro Ortega, Menorcan izan zen CNSEren 2015eko II Presidenteentzako Biltzarrean parte hartu zuen.

Abendua

5



Elkarrizketan parte hartu zuten pertsona gorrak.

Elkarrizketa DEIA Egunkarian.

Abenduaren 6an Deia egunkariak Euskal Gorrakeko lantaldeko hainbat kide gorri egindako elkarrizketa argitaratu zuen. Elkarrizketa honako lotura honetan irakur dezakezu: <http://www.deia.com/2015/12/06/sociedad/euskadi/un-mundo-de-silencio>



Janire Alonso (EG), Benjamín Conde (EG), Alejandro San Nicolás (Bureau Veritas) eta Álvaro Ortega (EG).

Euskal Gorrak Kalitate Zigilua lortu du.


Abenduaren 17an, Euskal Gorrak Bikaintasunarekiko Konpromisoari dagokion EFQM +200 zigilua lortu zuen. Hainbat urtetako lanaren ondorioz eta gure lantaldearen esfortzuari nahiz CNSEren laguntzari esker, gure erakundeak egindako kalitatezko lanarekiko aintzatespena eskuratu du.



Ritxar Pérez (EGko diruzaina) eta Álvaro Ortega (EGko presidentea) Iñigo Urkullu Lehendakariarekin.

Lehendakariaren Harrera-Ekitaldia.

Abenduaren 23an Lehendakariak euskal gizartearen ordezkariari egin ohi dien harrera izan zen. Aurten berriz ere Euskal Gorrak gonbidatu dute, Euskadiko pertsona gorren kolektiboaren ordezkari legez. Harrera-ekitaldian Álvaro Ortega, EGko presidentea eta Ritxar Pérez, EGko diruzaina izan ziren.



EUSKAL GORRAK
Pertsona Gorren Elkarten Euskal Federazioa

k/ Hurtado Amézaga 27 – 6. pisua
48008 Bilbo
Tel.: 944 765 052 / 637 861 920
Emaila: info@euskal-gorrak.org



Euskal Gorra*k* ibili badabil !!

Urria

Urriaren 3a

Zeinu Sistema Internazionalaren ikastaroa EDSUren Mintegirako antolakuntza-taldeko kideentzako, Bilbon.

Urriaren 6tik 11ra

EDSUren I Europako Mintegia eta Biltzar Nagusia.

Urriaren 19a

Lankidetz Amaia Jauregirekin pertsona gorrei buruzko ikerketa baterako.

Urriaren 20a

Álvaro Ortegaren hitzaldia turismo irisgarriari buruz Deustuko Unibertsitatean.

Azaroa

Azaroaren 3tik 6ra

CNSEk Madrilen antolatutako Komunikazio Teknikarien ikastaroan parte hartu genuen.

Azaroaren 12a

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailarekin 2016ko Gazte Gorren Estatuko Kanpaldiaren antolakuntza lantzeko.

Azaroaren 14a

EGren Estatutu berrien nahiz 2015-2018 Plan Estrategikoaren gaineko hitzaldia.

Azaroaren 14a

Euskal Gorra*k*en Ez-ohiko Biltzar Nagusia Bilbon.

Azaroaren 18a

Bilera Lanbideko Prestakuntza Zuzendariarekin Vitoria-Gasteizen.

Azaroaren 19a

Bilbon BBKren eskutik antolatutako “Enplegua eta Ezgaitasuna” jardunaldian parte hartu genuen.

Azaroaren 20a

Elkarrizketa DEIA egunkarian.

Azaroaren 24a

Bilera Arkauteko Ertzaintzaren Akademiako Zuzendariarekin.

Azaroaren 25a

Bilbon izandako BeQual jardunaldian parte hartu genuen.

Azaroaren 26tik 29ra

Menorcan izandako CNSEren II Presidente en Biltzarrean parte hartu genuen.

Azaroaren 30a

Donostiako Gizarte Ongizateko Kontseiluak deitutako bileran parte hartu genuen.

Abendua

Abenduaren 16a

Kalitate saioa CNSErekin.

Abenduaren 17a

Kalitate Ikuskaritza Bureau Veritasekin.

Abenduaren 18a

Euskal Gorra*k*eko Zuzendaritza Batzordearen bilera Bilbon.

Abenduaren 23a

Lehendakariak Vitoria-Gasteizen egindako harrera ofizialean izan ginen.